

## 7. BALIABIDEAK:

Gure balio proposamenak 3 funtzesko baliabide beharko ditu; baliabide fisikoak, finantza baliabideak eta giza baliabideak.

Baliabideen eskurapena, kanpo enpresa baten esku utziko dugu. Hauei erosiko dizkiogu eskuratuko ditugun baliabideak, oso autoexigenteak izango gara baliabideak bilatzean, baliabide hoberenak prezio txikienean erosiko ditugu ez dugu presarik baliabideak eskuratzeko prezio txikienean erostea da gure helburua orduan edozein beherapeni itzarongo diugu.

Lokala makina baino arinago alokatu beharko dugu. Eta dena prest daukagunean, orduan jarriko dugu makina. Baliabide guztiak generalean makina baino lehenago behar ditugu. Dena ondo ordenatuta izan nahi dugu eta modu efiziente baten. Baliabideak erabili nahi ditugu diru posible gehiena lortzeko.

Horretaz gain, garraioa beharko dugu tabernetara joateko pintxoak bila, honetarako, hasiera batean bizikletaz joango gara, eta baliteke etorkizunean autoa edo beste garraio eroso zein produktibo batean mugitzea (betiere enpresaren ekonomiari lotuta egongo litzateke aurrerapausu hau).

Baliabide garrantzitsuena makina izango da, teknologia oso aurreratua izango duen makina bat beharko dugulako negozio honetan. Aldi berean garestiena izango da, hain zuzen ere honen berrikuntzarengatik eta teknologiarengatik. Ondoren, lokalaren errenta joango litzateke eta azkenik, pintxoak eta mantenua.

Finantza baliabideen alorrean, hasiera baten gure aurrezkiak ipiniko ditugu enpresa aurrera eramateko. Honetarako, bakoitzak 3000€-ko inbertsioa egingo du, honela (3000€ x 4) **12000€**-tako aurrekontu inisiala izateko, lehenengo erosketak burutzeko.

Baliabide fisikoei erreparatuz, lokalaren errenta, ordenagailua, mahaia, aulkia (ikea osoa), janariaren erosketa eta banaketa, mantenua, kontingentziak... eta beste zenbait baliabide beharko ditugu.

Giza baliabideei buruz, hasiera batean ez dugu inor kontratatuko, gu izango gara langile bakarrak gure enpresan.

